

ETIKA UNIBERTSALA (II)

IV. ETIKAREN ARGIBIDEAK GIZA JARDUNETAN

Guk etika teoriak dihardugu, ez praktikaz. Gizakiari buruzko etika, ez gizakiaren jardunbide zehatzei buruzkoa. Baina teoriak praktikari orokorrean ematen dizkion argibide batzuk aipatu behar ditugu, aurkeztutako etika unibertsalaren oinarriekin darien argitasun elementalak azpimarratuz; bai herrialde-estatu bakoitzari eta bai lurberako herrialde guztiei dagozkienak. Hau da, etika unibertsala arazo unibertsal entzat.

Gogoan eduki behar dugu beti etika oro gizakia bera norabidedun maitari izanean oinarritu ezik, politikazko, ekonomiazko, bestelako ekintza guztietatik bat berak ez daukala gidadatuko duen inolako iparririk.

7. Etika unibertsala politika mundialean

Horago esana ipiniko dugu atal honen abiapuntutzat: etika gizarte, lurbera eta unibertsal osoan bateratze lana, gizakia argi ulertu eta gogo betez onartzean datza. Den denon zeregina eta onarpena da.

Politikagintzaren oinarriak

Etika politikoak ez du inolako esanahirik, gizakia norabide-dun dela baietsiz ez bada argitzen, Eta norabide hori maitajarduna dela ez badugu oinarritzat hartzen.

Gizartea gizakiarena dela esan izan dugu, eta ez gizakia gizartearena. Maitari bakarra gizakia da: hura, zu eta ni. Gizartea ez da maitari, ez dauka maitamenik. Horregatik ekintza zuzena, beti, gizakiak gizakiaren onerako egina izan behar da, zuzenean ala zeharka. Ez gizartearen onerako, gizakiaren onerako baizik. Gizartea bitartekoa da gizakiaren onerako. Gizakiaren onerako dena, gizartearen onerako da. Gizartearen onerako dena, gizakiaren onerako bitartekaritza eginez izango da onuragarri, gizakiaren gogoaren arabera gizartean eragina. Gizakiagan oinarritzen ez den araua hutsala da.

Politikagintza gizaki hiritarren talde ekintza da. Gizakiek ematen dioten norabidea dauka gizarteak. Eta norabide bakarra gizakiaren alde egitea da. Politikagintzaren helburua hau da: gizaki bakoitzak eta denok elkarrekin maitajardunean bizitzeko gure eginkizunak argitzen eta bitarteko erakundeak bideratzen laguntzea; eta inork inori nahigaberik egin ez diezaion saiatzea; gaizki eginak konpontzea. Eta helburu horiek lortzen lan egin diezaguten, gizaki hiritarrok gizaki herritar batzuk talde (Estatu) arduradun izendatzen ditugu, politikari onesten.

Honelakoa azaltzen zaigu, beraz, politikaria: *(1)gizaki (2)hiritar (3)talde (Estatu) arduradun*. Lehenbizi gizaki. Gero hiritar. Eta azkenik, hiritarrok talde-arduradun aukeratua. Substantiboa, gizaki; adjektiboa, hiritar; eta adjektiboaren adjektibo, politikari.

Beraz, gaur Estatu deitzen duguna guk gizakiok, hiritar ere garenez, geure elkar zerbitzurako izendatu ditugun politikari batzuen ardurapean ipinitako geure Erakundea da. Eta Estatu bakoitzeko eta Estatu guztien arteko harremanak gidatzeko

dauzkagun herri legediak etikaren sorkari-emaiza dira edo izan behar dira; gizaki den etikaren seme, geu egiten ari garen tresna elkarrekin giza giroan bizitzeko.

Horago idatzi dugu hau: gure maita-ibilbidea baldintzatuta eta mugatua egon ohi dela, bakoitzak eta gu bakoitzaren gizar-teak mugatzen/eskaintzen/ezartzen dizkigun iritzi, ohitura, sinesmen, legeen bitartez. Ezin dugu aldi bakoitzean gogoan eduki izan litezken ibil pista guztiak. Horregatik, gure gizarte erakundeen eta gure politikarien zeregin nagusia hori da: gure iritzi, ohitura, sinesmen, legediak eta ekintzak aldi eta une bakoitzean maitajarduneko ibilbideetara bideratzen guri gizakioi laguntzea.

Etika gizakiarena denez, etika ez dagokio hiritarren talde buruari, ez hiritarrari. Etika gizakiari -zientzialari izan ala langile edo langabe arrunta izan, berdin- dagokio. Etika gizakiari -politikari goren izan ala amona zaharra izan, berdin- dagokio.

Historia

Politikari izatea hiritar den gizakiaren hiritar egoeraren zehaztasun bat da, bigarren mailako adjektibo bat. Eta hiritar izatea gizakiaren egoeraren zehaztasun bat da, adjektibo bat. Garbi dago gizakiak agindu behar diola hiritarrari zelan jardun, eta gizaki hiritarrak gizaki hiritar politikariari. Substantiboa da goian, lehenen, gizakia; eta gero datoz maila guztietako adjektiboak eta adjektiboen adjektiboak: hiritar, politikari, ekonomialari eta abar.

Baina politikarien joera zeharo kontrakoa izan da garai eta bazter askotan. Lehenbizi talde arduradun; ondoren hiritarren agintari; eta gero gizakien jabe. Milaka urtetan politikagintza **botere**-erakunde, -tresna, -estruktura, -aulki goren bihurtuta azaltzen zaigu. Sistema politiko guztiak '**zerbaiten-krazia**' izan dira orain arte: **akrazia**, **aristokrazia**, **autokrazia**, **bankokrazia**, **burokrazia**, **demokrazia**, **gerontokrazia**, **ginekrazia**, **hierokrazia**, **plutokrazia**, **sozialdemokrazia**,

teknokrazia, **teo**-krazia, **timo**krazia. Aldi guztietako politika-ren teoriari buruzko eztabaiden gaia hau izan da: '*Boterea (krazia) nork?*'

Zorionez, agintari gorenari 'jainko', eta lurralde jabea 'Jaun naturala' zeneko garaiak gaindituta geratu zaizkigu.

Estatuak (politikariek) agintzea eta irakastea zelakoa izan behar den hiritarra, eta politikariak edo hiritarrak agintzea eta irakastea zelakoa izan behar den gizakia, gauzak hankaz gora ipintzea da. Gizakiak hiritarra, eta hiritarrek politikaria hezi ordez, politikariek hiritarra hezi eta hiritarraren izanean gizakia hezten saiatzea, astakeria hutsa da. Heziketaren oinarria, abiapuntua, gizaki maitaria da. Eta, orokorrean, gurasoak dira hezitzaile maitarienak, askoz egokienak. Aldiz, bere burua hezitzaile egiten duen Estatu agintaria gizaki bakarria baldin bada, bere heziketa astakeria zapaltzailea bihurtzen da, ezagutu izan dugunez; Estatuko agintariak alderdiak/taldeak baldin badira, hauen heziketaren adierazpenak, aldiz, maisukerien bilduma barregarria.

Gizakiaren sozialtasuna gizakiak gizakia maitatzean datza. Ez dago taldea eratzeko jardunbide zuzenik, bere bitartez gizakia maitatzea helburutzat hartu ezik. Gizarteak (senar-emazteak) sorrarazten du gizakia. Gizartearen (senar-emazteen) altzora dator haurra, maitasunera. Soinezko sen guztien gaintik gizakia maitagogo maitagogoen artean sortzen da, hautari dator guregana, ezagutari/galdegile.

Politikariak, batetik, gizaki maitariak direla aitortzen ari dira etenik gabe. Eta, zinez, gizaki dira, maitari dira gizaki oro bezalaxe. Proposatzen duten dena, ongiaren, ederraren, egiaren itxurapean eskainiko dizkigute; herritarrak maitatzearen zerbitzua eta gurtza darabilte beti ahoan. Ardura handiz saiatuko dira inork ez dezala pentsa eta esan bere ospe eta boterea gehitzearen gezurtxo bakar bat esango duenik, iruzurtxo bakar bat egingo duenik. Ez dezala inork pentsa ez dela maitari sutsu.

Etikatik begiraturaz, politikagintzan ere arazo nagusia ez da politikariak zelako gobernariak izan behar diren; zelako gizakiak diren baizik. Beste edozein gizaki bezalaxe gizaki izan behar dute euren ofizioan -eta bizitza osoan-.

Baina, zoritxarrez, zerbait gizartean argi eta garbi baietsia eta aitortua baldin badago, politikariak eurak, goren gehienak behintzat, gezurti direla da. Eurok esaten diete elkarki agintebotoak jokoan daudela uste dutenean batez ere, ozen eta mila eratan, hizkera negargarrian gainera, gezurtiak direla. ‘Gezurti’, ‘faltsu’, ‘iruzurti’, ‘maltzur’, ‘irainle’. ‘isekari’ hots egiten diete elkarki. Egia esaten badute, gezurtiak dira. Eta gezurretan ari badira, gezurra praktikatzen ari dira, gezurtiak dira.

Nik ez daukat dudarik gizatalde -gizarte- garenez hoberantz goazela esateko. Agintariak ‘ni Jainkoa naiz’, edo ‘ni Jaun naturala naiz’ oihukatzen zuten garaietan gizartea ez zegoen oraindik korrupzioa nabari ahal izateko mailan; gizakiaren egoerari begiraturaz askoz beherago baizik. Gero eta korrupzio gehiago ikusten dugula pentsatuko dugu. Baliteke. Baina egia zera da, nik uste: korrupzioa gero eta gutxiago dagoela, gero eta nabarmenago eta ezkututzen zailago izan arren, zorionez.

Gizakiaren gero eta onespén argiagi honek bi alderdi dauzka, bai. Bat, esan duguna, hoberantz. Bestea okerrerantz: gizakiaren zientzia goretsiz, gizakia zientziaren azpisaileko gai huts bihurtzerantz. Baina begi-bistan dator desbideratze puztu horren hustea. Ezin gara orain eta hemen arazo honetan sartu.

Politikariak

Herritar gisa politikagintzaz ari garenean, gure politikariak denon maitari jardun dezaten lortzea dugu helburu. Baina aldi eta une bakoitzean zein den ibilbide egokia aukeratzea talde osoa maitajarduneko norabide zuzenean aurrera dadin, arazo zaila da. Beti izango ditugu iritzi desberdinak, beti izango dugu desbideratze penagarrien arriskua.

Ba da zer bait oinarrizkoa eta zeharo garrantzitsua gure eta mundu guztiko politikarien lana aztertu, epaitu eta bideratzeko: egia. Hori da geuk, gizaki egiazale gisa, politikariei eska-tu/agindu behar diegun ibilbidearen osagai nagusia: *Izan egia-ti*. Gizadiaren hondamendia, gaur eta beti, hemen eta mundu guztiko bazter guztietan, *gezurra* izan baita.

Politikagintzarako gizakiak aukeratzean, galdera hau egin beharko genieke lehenbizi:

“Oso atsegin duzu boterea?”

“Bai” erantzuten badu, aurrera. “Ez” erantzuten badu, eli-minatuta.

Bigarren beste galdera hau:

“Gezurra den maltzurkeriari, faltsukeriari, isekari, iruzur-rari, gorrotoari uko egin eta egiami (hitzez eta egitez) izango ahal zara beti?”

“Bai” erantzuten badu berriz, badaukagu, hasteko, politi-kari on bat. Eta agindutakoari eusten badio egia boterea eskuratu/gordetzearen gainetik hautatuz, gure gorespe-nik beroena irabaziko du.

Gizaki guztion etika, etika unibertsala, berdina da. Txinan, Indian, Ameriketean, Europan, bazter guztietan, egiaz gizakia-ren izanaren arabera jokatea da etika. Ezin inola esan guk, mendebaldarrok, gezur gutxiago eta txikiago esan/egin ditugu-la beste edozein naziokoek baino.

Egiaren aurkako adibidetxo esanguratsu bat eskaini nahian, bai kristau giroko herrialdeak, bai islam mundukoak, bai judo-ak bereganatzen dituen, ‘Las Azores’ isletan Amerika Batuetako, Britainia Handiko eta Espainiako gobernari buruek 2003. urtean hartutako erabakia izan daiteke: Iraken haurkako guda egiteko burubidea, hain zuzen. Adibidea ez datza guda oneste-an, guda egitea gezur susmope argian erabakitzean baizik. Areago, adibidea ez da bakarrik politikari horiek hartutako

erabakia, herrialde horietako hiritar gehienek egin zuten hautaketa baizik.

Erabakia hartu eta denbora gutxi barru hauteskundeak izan ziren hiru herrialdeetan. Une horretan oraindik ez zegoen zeharo argi, baliteke, gezurrezko arrazoietan babesten zirela dozenaka milaren biztanleen heriotzari eta lurraldearen hondamendiari ekiteko. Baina ba ziren, bai, susmo sendoak gezurretan ari zirela pentsatzeko. Harritzekoa izan zen lurralde horietako herritarrek agintari jarraitzeko (espainiarren aukera aldatu egin zen asken unean, bestelako gezur baten jarduteagatik) politikari berberak aukeratu zituztela jakitea.

Eta adibideak dakargun azken galdera hau da: Zer moduzko gizaki gara gu, gure hiri ekintza nagusietan horren erraz aukeratzen baditugu politikari susmo sendopeko hiritar gezurtiak?

Estatuek darabiltzaten trikimailuak egia ezkutatzeko, euren helburu egoistak arrazoizko asmoez estaltzeko, bukatu egin behar dira. Baina ez dugu zertan politikariei buruz negarti izan, ez dugu zertan hiritarren kexu ibili, gu geuk, gizakiok gizaki garenez, gezurraren kontrako eta egiaren, egiatien aldeko horren joerarik ezean badihardugu. Argi eduki behar dugu gezurra dela gutako bakoitzaren, herriaren eta gizartearen ustelkeriaren muina.

Beraz, lehenbizi, geu gizaki arrunt garenez izan behar gara egiati, geu artekin sortzen diren politikariak gezurrera jotzea aukeratu ezin dezaten.

Egiati izan eta iraun ahal izateko, lehenbizi *'krazia'* bila jarduteari uko egin behar diogu; bai norberekoi den *'krazia'*ri eta baita ere alderdi/talde/herrialdearen *krazia* ustelaren bila ekiteari. Gaur modan dagoen *'demokrazia'* hitza ere bi aldiz da giza jardun ororen adibide okerra (gizakien esanera jartzearen alde ona aparte). Batetik kolektiboarena delako, kolektibo egiten duten gizakiena izan ordez. Eta bestetik, *krazia*; hau da, boterea, maitari garatzearen zeharo kontrakoa.

Garaia heldu dela uste dut *zerbait-krazia* guztiak utzi eta aro berria hasteko, *antroparkiaren* aroa. Hiritarrek aukeratzen duten maitasunezko ibilbideetan jardunez, gizakiaren eta giza-kiz osatutako herrien/taldeen nortasunaren aldeko aroa. Egiaz ibiltzearen maitabidea.

Beti eta denean ekintza ororen abiapuntu, jardunbide eta helburu gizakia dela gogoan edukiz, gizadiaren garai berriari izenburu berria ipini behar diogu: '*antroparkia*' Hau da, gizakiaren (antropos) lehentasuna (arkia).

Politikagintzan dihardugunean (eta beti), gizaki guztioi, herritar guztioi, gizadiko politikari guztioi hitz bat oihukatu behar diegu ozen, aspertzeke: *Gizakia den etika unibertsalaren ize-nean: **politikan gezurrik ez, beti egia.***

8. Eskubideak/Eskabideak

Etika gizakia da. Baina gizakia lo dagoenean, etika lo dago. Eta besteen eginkizunak aipatzen ditugunean besteen etikaz ari gara.

Eskubideak bi eratakoak direla esan ohi da: pasiboak eta aktiboak. Frantziarren hizkeran, '*droits-libertés*' eta '*droits-créances*' (askatasun-eskubideak eta hartzeko-eskubideak). Adibidetzat, '*bizitza*' (ez kendu) eta '*lansari egokia*' (eman). '*Iritzi ematea*' (ez eragotzi) eta '*ikasbidea*' (eskaini).

Gogoan eduki behar dugu, hasteko, askatasun eskubideen aldeko oihua agintarien aurka (Estatuen aurka) jarri beharrak sorrarazi zituela. Hartzeko eskubideak, aldiz, juristek adierazi eta agintariek onetsitako '*unicuique suum*' ('*suum cuique tribuere*') esaeran daukate erroak. Bakoitzari berea. Ezin ukatu, jakina, eskubideen deklarazio entzutetsuak aurrerapen handia izan direla agintariek gizakiaren aurka bereganatutako ahalmenak argitu, gaitzetsi edo mugatzeko. Hau da, gizakiek gizaki hiritar agintarien etika finkatzeko.

Eskubide aktiboa izan (iritzia ematearena, adibidez) ala eskubidea pasiboa izan (eskola eskubidea), ez bata eta ez bestea, ez dira eskubidedunaren eginkizunak, beste batzuenak (Estatu/politikariena) baizik. Besteek dauzkaten eginkizunak dira, ustezko eskubidedunari buruzkoak.

Beraz, eskubideek, beti, mugaz bestaldean dabiltzan gizakiek dauzkaten eginkizunetara bidaltzen gaituzte. Eskubide deitzen alderditik bestekaldera garamatzate, etikaren lurralde-
ra. Eskubideak ez daude etikaren alorrean. Eginkizunak daude etikapean. Gizakia ez da eskubide, eginkizun baizik.

Eskubideen aldeko teoriak bi huts dauzka: ez diharduela erantzuleei buruz; eta eginkizunak baztertuz, edozein eskabide eskubide bihur daitekeela.

‘Unicuique suum’ (bakoitzari berea) emateko gai denak boterearen eta ospearean erpinean jarrita erakusten du bere burua. Jainko irudian azaltzen da. Politikariaren esanetan ‘berea’ (bakoitzaren berea) den dena izan liteke, edozein eskabide eskubide bihurtuz, baldin politikariak uste badu eskaintza zehatz horien agintzeak boto gehiago eskuratuko dizkiola.

Eskubideak dira politikarien tresna, jauja. Garai homerikoan abeslari/bertsolari antzeko ziren aedoek^{137[18]} betetzen zuten propagandazko zeregina aristokraten era guztietako handitasunak kantatuz, gaur politikarien ‘mediak’ egiten dute aldarrikapen hori. Politika, finantzak eta mediak nahaspila bat dira. Gizakien gero eta eskubide sakon eta ugariagoei emango dieten erantzun bete aginduz kantatzen dute politikariek euren onginaharen handitasuna. Agindu/zeregin horretxan irrikaz bizi izan dira eta bizi dira botere gosedun diren politikariak:

“Nik beteko dizuet zuen eskabide/eskubideak. Nik emango dizuet gainezka bakoitzari berea. Nik. Eman. Beste alderdikoek, aldiz, gezurretan agintzen dizuete zuen eskubideak betetzea”

Politikari botere gosedunen ahoan herriko gizakiek ez dute eginkizunik, ez dute hartu/jaso besterik. Eskubideak? Horixe bai!

Nonbait ondasun guztiak lainoetatik jausten dira Estatura, eta politikarien zeregina horixe da: Estatuko ondasunak banatzea.

Gaur egun giza heziketaren akats handi bat zera da: haurrek eta gazteek ez dutela entzuten eta bereganatzen ‘eskubide’ hitza baino, ondasunen banaketan euren zatia jasotzeko eskubideak baizik. Inork ez die eginkizunak aipatzen. ‘Eskubide’ hitz antzuaren inflazio garaian gaude.

Bakoitzak berea

Antroparkia. “*Unusquisque suum*”. Bakoitzak berea egin, bete. Taldean nabilenean taldearen helburuak lortzeko jardunean ere, nik zer egin behar dut? Hori da benetako galdera. Hori da etika. Guk zer egin behar dugu? galderak bi saio eskatzen dit niri: 1) helburuak zehaztean nik nire taldekideoi ahal dudan argia eman. 2) onartutako helburuak lortzen saiatu ni ere, nire taldekideekin batera. Maitari bakarra, ezagutari bakarra, hautari bakarra gizaki soila da. Eginkizuna, beti gizakiaren zeregina da, nire zeregina da. Alperrik da taldearen okerrak aipatuz negar egitea. Taldeari nik ez laguntzea, ez helburuak zehazten eta ez onartutako helburuetara iristen, horregatik egin behar dut hausnar eta negar damu zintzoz. Nire eginkizunak, ez nire eskubideak.

9. Etika unibertsa ekonomia mundialean

Ekonomiaren arazoa ere ikuspuntu berdinetik aztertuko dugu: egia/gezuraren ikuspuntutik.

Munduko ekonomiaren arazoa lotuta dator zeharo politikarekin. Esaten zaila nork agintzen duen: ekonomiak politikari, politikak ekonomiari, edo parean doazen. Dirudunek finantzatzen dituzte politikariak; politikariek ekonomia arautzen eta eskuratzen dute. Nor nagusi?

Giza ekintzaren batengan gezurra nabaria baldin bada, nazio arteko ekonomian.

Bi puntu aipatuko ditugu: 1) globalizazioaren hierarkia. 2) zientzia teknologiaren hedapena.

Globalizazioaren hierarkia

Gizakiek lan egiten dute. Lan eginez, zerbitzuak eta produktuak burutu eta bereganatzen dituzte. Beren zerbitzu eta produktuak eskaini egiten dituzte diru truke, besteek eginiko produktu eta zerbitzuak eros ahala eskuratzeko.

Ekonomiatik eta alderdi guztietatik begiraturaz, lehenbizi, beiti, gizakia dago, gizakia azaltzen da. Gero datoz gizakiak eginak. Eta gero dator gizakiak egindakoen jabetza trukatzeta eta jabetzen jabetzak trukatzeta..

Hori da ekonomia unibertsalaren oinarrizko inongo zalan-tzarik gabeko hierarkia, egia. Askatasunaz epaitzen baditugu ekonomia unibertsalaren arazoa, lehenbizi, goian, gizakiaren askatasuna, nonahi eta zernahitan aritzeko. Ondoren, beherago, berak eginak nonahi eskaintzeko. Eta gero, azpian, nonahi zernahiren jabe burutzeko.

Ematen ditugun arrazoi guztiak diru globalizazioa onesteko, baina gizakiari nonahi lan egiteko askatasuna ukatzeko, ekonomiazko gezurrik ustelenean aritzea da, hipokresia hutsa.

Neoliberalismoa diru liberalismoa den heinean gezurra da eta antiliberala; gizakiagan oinarritu ordeztu seudo-teorien azpira botatzen duelako gizakia. Antiglobala da, mugak eta arantzelak ipintzen dizkielako egileari, langileari, zientziari. Antimundiala da, bere etika herri batzuen onuragarri eta besteen kaltegarri delako.

Gizakien askatasuna nonahi lan egiteko problema itzela izan daiteke. Baina problema itzel hori aipatzeke diruaren globalizazioa predikatzea, zinismo hutsa da. Eta egiten ari garena benetan lotsagarria da. Diruaz mundu guztian nahi denaren jabetza lortzeko eskubidea aldarrikatzea, baina gizakiak gure herrira mugi ez daitezen hormak eraiki, mugetan gudarosteak

ipini, kontrolak ezarri, banakako egoeraren eta gaitasunen hautazko ikerketak (txartel urdinak) antolatu; benetan ekintza eta arau lotsagarriak dira.

Norbaitek esango du: zer orduan, utzi nahi duen orori gurera etortzen? Galdera maltzur horrek erantzun argia dauka: ez ebaki arazo bakarra bi zatitan: bat, jabetzaren arazoa, eta bestea lan nonahi egitearen arazoa. Arazo bat bakarra denez (gizakiari dagokiona), gizakiaren askatasuna eta jabeko askatasuna batera jasoz arazo bakartzat erabili beharrak dira. Eta erantzuna hau da, gizakiaren askatasunari mugak ezartzen diogun neurrian, batera, beste hainbeste eta gehiago muga, baldintza eta lokarriak ipini behar zaizkio jabetzaren askatasunari. Jabetzaren askatasuna gizakiaren askatasunaren zerbitzari egin; eta ez alderantziz.

Gure hipokresia, berriz esan, itzela da. Gizakiari buruz autarkia nahi dugu: gure herrian gu eta gure gustukoak, banaka aukeratuak. Gure diruari buruz ez dugu nahi autarkia arrastorik mundu guztian, diru globalizazio erabatekoa aldarrikatzen dugu. Guk predikatzen dugun globalizazioa iruzur galanta besterik ez da.

Hamaika herrik kapital autarkia praktikatu beharko luke. Kanpotarrek bertako ondasunen jabetzea banan banan aztertu, ukatu ala baldintza zehatzepean onartu.

Gaurko gizartean aukera handia daukagu pobrezia gainditzeko guk ere lasai aurrera eginaz, bi alderditik: a) zientzia eta teknologiaren hedapena herri guztien biztanleen eskumenera iritsaraziz produkzio ahalmena indartzen ari delako mundu guztian. b) gizaki eta herri guztien giza errespetu eta solidaritateak eskaria gehitu eta eskaintza iraunarazi egiten eta egingo duelako.

Arazoak ikusten ditut gizadiaren etorkizunean, gu, mende-baldekoak, egiaren ibilbideak onartuz elkarren maitasunezko norabidera gogoz aldatuko garen arte. Guk gezurretan dihardugu nazioarteko ekonomian. Egiara itzuli behar gara.

Zientzia eta teknologiaren hedapena

Orokorrean globalizazioaren arazoa argitzean bistan ipini behar dugu hau: teknologiaren, zientziaren, jakituriaren aurrerapenari eta hedapenari zor diegula globalizazioak ekarri dizkigun aurrerapenak, eta ez ekonomia globalizatuaren eragina. Gezur hori ezabatu beharra dago.

Globalizazioa oso ona da, jakituriaren eta elkarren ezaguera-
ren hedapena den neurrian. Gaur eskura dauzkagu -beste inoiz ez bezala eta munduko bazter guztietan- behar dugun informazio-
riorik gehiena ekonomia sustatzeko. Aukera onuragarri hau giza-
kien hausnar/azter/saio modu guztietako ekintzei zor diegu, eta ez gaurko neoliberalak goresten duten kapital globalizazioari.

Zeharo alderantziz, jakituriaren hedapenak ez dizkigu oraindik onura asko eta asko ekarri, diru globalizazioa jakituriaren hedapenaren kontra ari delako. Diru globalizatzaileek patente, erregistro, kontrol, era guztietako arantzel, zama, eragozpen eta garestitzeak ezartzen dizkio gizakiok aurkitutako aurrerapenen erabilerari. Autarkia itsuaz erasotzen dio nazio guztien arteko jakituriaren hedapen onuragarriari. Gaurko neoliberal askok, ahal izanez gero, patentatu egingo luke Newtonek opari eman zigun grabitatearen teoria bera ere.

Baina gizakiaren lehentasuna onesteari esker eta zientzia eta teknologiaren etenik gabeko gehitzeari esker, munduko herri guztien etorkizuna argitzen eta hobetzen joango dela uste dut, ez eztabaidarik gabe.

Ekonomian ere, *Gizakia den etika unibertsalaren izenean: **Gezurrik ez, beti egia.***

10. Gizarte bizitza arruntean

Gizarte gaur eztabaidagai eta aztergai daukagun gure arazo nagusia, baliteke gizakiaren sorreraren eta bilakatzearen ulerkera izatea. Arazo horri helduko diogu hitz gutxitan, argigile berbera erabiliz: gezurra ez, egia beti.

Euskaraz garbi baiesten dugunez, behin zigotoa osatuz gero, zelula bakar hori haurra da, zelula hori daukan andrazkoa *haurdun* baita/baitago. Haur (=gizaki) sortua dago hasieran bertan, zigotoa eratzean. Baldintza egokietan ipiniz gero, bere kabuz andre-gizon osatu garatuko dena.

Eta zelula bakar hori haur bada, zelula bilduma bilakatzen ari den edo bihurtu den izakia beti izango da gizaki, nolana-hiko ahalmen galerak jota nolabait ezgauza bihurtuko bada ere.

Haugintzan (gizakia sorrarazten) jardun, baina baita ere haur-sorrera eragozten saiatu, gezurretan aritzea da, gizakia izan ez izan arazo nagusian. Iruzur handia egiten. Beraz, gizakia sortzetik da gizaki, hil arte da gizaki. Eta sortzetik heriotzaraino arteko bizibidean ari dena erailtzea, gizakiaren onespen orokorra oinperatzea da. Hori baiesten digu euskarak gure natura sakon eta zuzen adieraziz.

*Gizakia den etika unibertsalaren izenean, oihuka: **Gezurrezko erailketarik ez, beti maite.***

Etika unibertsalaz egindako hausnarketa nahiko luzearen ondoren, nik uste giza jardun garrantzitsu batzuk aipatu eta ikertu ditugula: politika, ekonomia, giza bizitza. Baina gizakiaren jarduna hain aberatsa izanik, inoiz ezingo ditugu etikak distiratzten dizkigun argitasun guztiak erakutsi, ez eta aztertu. Hemen ikertu gabeko gaien artean gizakiak zientziagintzan eta zientziak giza-kiari buruz egiten dituen hausnarketak geratzen dira. Ia aurrerago aukera edukitzen dugun azterketa horiei ekiteko.

Jenaro Garate